



Erosketa-Turismoa

Erosteke beste modu bat. Saltzeko beste modu bat.

Donostia, 2017ko azaroak 27. Erosketa-Turismoa egunez egun gora egiten ari den sektorea da, Euskadin aktibitatea sortzeaz gain, hori dela eta **EUSKAL MERKATARITZAREN TOPAKETAN** azterketa eta eztabaida gai izango da. Topaketa **azaroaren 29an** egingo da Gipuzkoako Bazkuntzeko egoitzan.

Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Ganberak antolatutako topaketa honen **XIX. edizioaren** helburua merkataritza-enpresak guregana datozen turistei eskaintza erakargarria aurkezteko beharren inguruan sentsibilizatzea da, enpresa horiei horretarako behar dituzten tresnak emanaz.

“EROSKETA -TURISMOA. Erosteke beste modu bat. Saltzeko beste modu bat” lelopean, turismo mota hau Euskadin hartzen ari den garrantziaz ohartarazi nahi zaio merkataritza enpresari, sektorearentzat aukera bat gehiago dela azalduz. Azken batean helburua da hiri-ingurune bateko merkataritza-proposamena Euskal Autonomia Erkidegora hainbat arazoirengatik edota baita sasoz kanpo ere etortzen den turistaren edo bisitariaren eskaerak eta espektatibak asebetetzera bideratutako zerbitzu-eskaintza integratuaren (merkataritza, ostalaritza, kultura, aisia, kirola eta abar) parte izan ahal izatea.

Kongresuan, Isabel Muelak, Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritza sailburuordeak; eta Pedro Esnaolak, Eusko Ganberen presidenteak parte hartuko dute, bi hizlariez gain. Bata Laureano Turienzo da, negozioen formatu berrietan aditua, eta bestea Luis José Llorca Lizaso da, Espainiako Global Blue-ko zuzendari nagusia eta Madrilko Ekonomista Elkargoko kidea.

Laureano Turienzok *“Zer eskatzen du kontsumitzaile berriak, turista ere badenak”* azalduko du. Bere aurkezpena kontsumitzaileak eta turistak ere direnen jokabidean zentratuko da; euren erosteke ohituretan etb... helburu argi batekin: nola diren ulertu euren beharrei erantzuteko edoeta behar horiei aurreratzeko.

Luis Llorca Lizasok berriz, *“Turismoaren indarra”*ri buruz hitz egingo du. Komunitatetik kanpo Euskadira etortzen den turistaren profila aurkeztuko du, euren jatorria eta kontsumitzen dituzten produktuak azpimarratuz, horrela esparru honetan merkataritza sektorearentzat dauden aukerak ere nabarmenduz.

Topaketan ere prestakuntzako tailer praktiko bat eta bi mahai inguru egingo dira. Tailerrean online kanalaren bitartez salmentak nola handitu azalduko da, eta mahai inguruetan bi gai aztertuko dira bata, turismoarekiko euskal establezimenduek izan duten harretaren inguruko esperientziak eta bestea, e-commercearen inguruko esperientziak.

Informazio gehiago: www.camarabilbao.com/www.camaradealava.com/www.camaragipuzkoa.com

